



Bulletin Municipal - Herriko Aldizkaria

3 ... Auzapezaren Hitza.

5 ... 2021-2026ko Bizitegien Tokiko Programa.

7 ... Eguzki energiarako laguntza.

8 ... 2021eko aurreikusia den aurrekontua.

13 .. 2021ean jadanik egin obrak.

15 .. Urte bukaeran egitekoak ditugun obrak.

16 .. Gogoetan dauden proiektuak.

17 .. Baigura Mendi Elkartea.

18 .. Bide seinaleak.

19 .. Elkartasunezko garraioak Hazparnealdean.

20 .. Zenbait argibide; desfibrilagailua erabiltzeko formakuntza, agenda.



2 ... Le mot du Maire.

4 ... Le Programme Local de l'Habitat 2021-2026.

6 ... Le coup de pouce solaire.

8 ... Le budget prévisionnel 2021.

12 .. Les travaux déjà réalisés en 2021.

14 .. Les travaux prévus pour la fin de l'année.

16 .. Les projets en cours de réflexion.

17 .. L'association Baigura Mendi Elkartea

18 .. Les panneaux signalétiques.

19 .. Transport solidaire au Pays de Hasparren.

20 .. Informations diverses, formation au défibrillateur, agenda.

Le mot du Maire

Chers Makear,

Comme chaque année, ce bulletin permet de vous présenter les grandes lignes de fonctionnement ainsi que les dépenses d'investissement de la commune de Macaye.

Durant cette période, l'équipe municipale a dû s'adapter au dispositif sanitaire mis en place par le préfet. Ainsi, toutes les réunions du conseil et les commissions thématiques se sont déroulées dans la salle Mindegia.

Pour la moitié des membres du conseil municipal, un premier travail de réflexion pour l'élaboration du budget de la commune et découvrir la complexité des équilibres des lignes budgétaires.

Pour l'année 2021, le budget de fonctionnement reste stable avec toujours des frais d'entretien de bâtiments et de voirie importants.

INVESTISSEMENTS 2021

- AMENAGEMENTS ETXEHANDIA
 - Atelier de couture pour la société CARD (aujourd'hui installée à Kurutzaldia)
 - Miellerie collective EZTI ETXEA (travaux entièrement pris en charge par l'association)
 - Les bâtiments de la zone artisanale seront terminés pour la fin de l'année
- Accessibilité des toilettes communales
- Mise en conformité de l'éclairage du mur à gauche
- Travaux de voirie
- Mise en place d'une signalétique des routes et lieux-dits en vue du déploiement de la fibre optique en 2022
- PLUI: Modifications de certains articles avec une enquête publique à l'automne
- BAIGURA MENDI ELKARTEA (Association des gestionnaires du massif du Baigura qui regroupe les 7 communes autour du Baigura)
 - Mise en place de panneaux informant les usagers des massifs du Baigura et de l'Ursuia sur les bonnes pratiques à avoir dans la montagne
 - Une bergère a été embauchée sur la période de mai à Septembre pour la surveillance des troupeaux de brebis et faire de la pédagogie aux randonneurs pour garder les chiens en laisse et essayer d'éviter ces incivilités constatées en cette période de doute et d'incertitude de crise sanitaire qui a perturbé notre quotidien.

Au nom de tous les membres du conseil municipal, je vous souhaite de bonnes vacances, un bel été et à nouveau de partager des moments conviviaux en famille et avec les villageois.

Le Maire
Alain DUBOIS

Auzapezaren Hitza

Makear maiteak,

Urte guzietz bezala, berripaper honen bidez aurkezten dizkizuegu Makeako herriaren funtzionamenduaren ardatz nagusiak eta inbestimendu-gastuak.

Herriko Etxeko taldeak egokitu behar izan du prefetak plantan ezarri osasun egoerari. Ondorioz, Herriko Kontseiluaren eta gaikako batzordeen bilkura guziak Mindegia gelan iragan dira.

Herriko Kontseiluko kideen erdiarentzat lehenbiziko aldia zen gogoeta lan bat eramaten zutela herriko aurrekontuaren lantzeko, eta aurrekontu lerroen orekaren konplexutasuna deskubritu ere dute.

2021ean funtzionamendu aurrekontua egonkorra egon da, eta eraikinen eta errepideen mantentzeko gastuak handiak gelditzen dira.

2021eko INBESTIMENDUAK

- ETXEHANDIAREN ANTOLAKETAK
 - Joste lantegia CARD sozietatearentzat (orain Kurutzaldian plantatuak dira)
 - EZTI ETXEA ezitegi kolektiboa (obrak osoki elkarteak ditu bere gain hartzen)
 - Ofiziale guneko eraikinak urte hondarreko bururatuak izanen dira
- Herriko komunak helgarritasun arauen arabera ezartzea
- Ezker paretako argiak arauen arabera ezartzea
- Bideetako obrak
- Bide seinaleak plantan ezartzea 2022an zuntz optikoaren hedapena egitekoa baita.
- HTHP: Artikulu batzuen aldaketa eta inkesta publikoa larrazkenean
- BAIGURA MENDI ELKARTEA (Baigura mendiaren kudeatzaileen elkarte, Baigura inguruko 7 herriak biltzen dituena)
 - Baigura eta Urtsua mendietan argibide taulak ezartzea mendian nola jokatu behar den esplikatzen
 - Artzain bat enplegatua izan da maiatzetik irailera ardien zaintzeko eta ibiltariei esplikatzen zakurrak loturik behar dituztela atxiki, eta gure egunerokoa traba duen osasun larrialdian agertu diren oieskeriak baztertzen.

Herriko kontseilukide guzien izenean, bakantza onak desiratzen dizkizuet, uda ederra, eta familian eta herritarren artean memento goxoak iragatea.

Alain DUBOIS, Auzapeza

Le P.L.H. 2021-2026 du Pays Basque

Le Programme Local de l'Habitat Pays Basque est établi à l'échelle des 158 communes de la communauté Pays Basque. Décidé pour 6 ans, il définit la politique de l'habitat de la communauté : il fixe les objectifs à atteindre (notamment en matière de création et de réhabilitation des logements ou encore de développement des places d'hébergements), définit les priorités et identifie les moyens à mobiliser. Il se compose d'un diagnostic, d'un document d'orientation et d'un programme d'actions.

Initiée en septembre 2017, cette étude a véritablement démarré au cours du second semestre 2018 et devrait se terminer fin 2021, avec l'avis de l'Etat et du Comité Régional de l'Habitat et de l'Hébergement.

Le diagnostic a été alimenté par l'analyse de nombreuses données relatives à la démographie, au logement, à la fiscalité, etc., mais aussi par des entretiens réalisés avec les acteurs du territoire : élus, associatifs, partenaires. Deux séminaires sont venus compléter le diagnostic par le biais de travail en atelier.

Le PLH Pays Basque 2021-2026 s'inscrit dans des choix d'aménagement du territoire faits au regard des enjeux de mobilités, d'énergie et de climat : le Plan de Déplacement Urbain (PDU) et le Plan Climat Air Energie Territorial (PCAET) ont également été élaborés dans le même calendrier.

Le projet de PLH 2021-2026 s'organise en 5 orientations :

- La mise en œuvre du PLH, une responsabilité partagée
- L'action publique en matière d'habitat à inscrire au cœur d'un projet global d'aménagement du territoire
- L'ambition d'une offre de logements orientée vers les ménages locaux
- La priorité donnée à l'amélioration et à la reconquête du parc bâti existant
- L'exigence d'une offre de logements accessible à tous les publics

L'objectif de production de logements, fixé pour la période du PLH à 2 686 logements/an, répond à cette volonté de maîtriser le développement, via un ralentissement de la construction globale pour retrouver le rythme des années 90.

Il s'agira de répartir la croissance de façon plus équilibrée sur le territoire, notamment en faveur du Pays Basque intérieur (+ 70 % de production), en l'accompagnant d'une politique d'aménagement du territoire globale et cohérente (développement économique, services, mobilité...) pour améliorer son attractivité et favoriser le développement de bassins de vie autour de polarités à conforter. A l'inverse, il s'agit de ralentir véritablement la croissance dans les communes littorales et rétro-littorales, avec une baisse de production affichée à hauteur de -19 %, en prenant la main sur l'action publique et en mettant en compatibilité les documents d'urbanisme.

Mais il s'agit, en parallèle, d'orienter cette production de logements vers les ménages locaux, dont les revenus sont déconnectés des prix du marché, en massifiant la production (+ 50 %) de l'offre dite sociale ou accessible : logements locatifs sociaux, accession sociale à la propriété...

Les moyens à mettre en œuvre dans les 6 prochaines années, pour les collectivités qui financent et les bailleurs qui produisent, seront d'une ampleur exceptionnelle.

La réhabilitation du parc de logements existants, en particulier des logements vacants, ainsi que leur rénovation énergétique est un axe fondamental du projet, dans les perspectives fixées par le Plan Climat.

Euskal Herriko 2021-2026ko BTP

Euskal Herriko Bizitegien Tokiko Programa Euskal Elkargoko 158 herrientzat finkatua da 6 urterako, eta elkargoko bizileku politika zehazten du: erdiestekoak diren helburuak finkatzen ditu (bereziki bizitegien eraikuntzak eta zaharberritzeak, eta aterpe-lekuak), lehentasunak zehazten eta mobilizatzekoak diren baliabideak identifikatzen. Diagnostiko batez, norabide dokumentu batez eta ekintza programa batez osatua da.

2017ko irailean abian jarri zen ikerketa, baina 2018ko bigarren partean da zinez hasi, eta 2021 hondarrean bururatu behar liteke, Estatuaren eta Bizilekuen eta Aterpe lekuen Eskualdeko Batzordearen onespenerekin.

Diagnostikoa egiteko demografiari, bizitegiei eta fiskalitateari buruzko datu franko aztertu dira, baita ere lurraldeko eragileei egin elkarrizketak, hala nola hautetsiei, elkarteei, partaideei. Diagnostikoaren osatzeko bi mintegi egin dira lantegitan lan egiteko.

Euskal Herriko 2021-2026ko BTP sartzan da mugikortasun, energia eta klima erronken arabera egin lurralde antolaketa hautuetan: Hiriko Lekualdatze Plana (HLP) eta Lurraldeko Klima Aire-Energia Plana (LKAEP) ere egutegi berean apailatu dira.

2021-2026ko BTP proiektua 5 norabidetan oinarritua da:

- BTPren gauzatzea, erantzukizun partekatua
- Bizilekuen alorreko ekintza publikoa lurralde antolaketaren proiektu orokorraren zentroan ezartzea
- Bizitegi eskaintza tokiko familiei zuzentzeko xedea
- Lehentasuna ematea bizitoki eraikien hobetzeari eta berreskuratzeari
- Denek lor dezaketen bizitegien eskaintzaren eskakizuna

BTPren denboraldirako finkatu bizitegi berrien helburua 2 686 bizitegikoa da urteko, eraikuntzen garapena menderatzeko eta urritzeko asmoarekin, 1990. hamarkadako erritmora itzultzeko. Hazkundera manera orekatuagoan banatuko da, bereziki Ipar Euskal Herri barnealdean (+ % 70 eraikuntza), lurralde antolaketa politika orokorra eta koherentea plantan ezarriz (garapen ekonomikoa, zerbitzuak, mugikortasuna...), barnealdea erakargarriago egiteko eta bizi eremuak garatzeko indartzekoak diren polaritateen inguruan. Kontrara, itsasbaterreko eta itsasbaterretik hurbil diren herrietako hazkundera zinez urritu behar da, ekoizpena % 19z apalduz, ekintza publikoa berreskuratuz, eta hirigintza dokumentuak bateratuz.

Aldi berean, bizitegi ekoizpena tokiko familiei behar da zuzendu, haien irabaziak merkatuko prezioetarik urrun baitira, hori, eskaintza soziala edo eskuragarria arrunt emendatuz (+ % 50): alokatzeko bizitegi sozialak, jabego sozialera heltzea...

Ondoko 6 urteetan plantan ezarri behar diren baliabideak izigarri hedadura handikoak izanen dira, bai finantzatzen duten elkargoentzat, bat ekoizten dutten alokatzailleentzat.

Diren egoitzen zaharberritzea, bereziki hutsak diren bizitegiarena, eta haien berritze energetikoa proiektuaren funtsezko ardatza da Klima Planak finkatu perspektibetan.

Le coup de pouce solaire



La Communauté d'Agglomération Pays Basque est engagée dans la transition écologique et énergétique de son territoire et a voté un nouveau dispositif permettant de soutenir financièrement les particuliers souhaitant installer des panneaux photovoltaïques ou hybrides sur leur toiture existante (aide de 20% du montant de l'installation).

Le cadastre solaire du Pays Basque est un outil en ligne proposé par la Communauté Pays Basque pour connaître le potentiel de production d'énergie solaire des toitures des habitations et bâtiments de l'ensemble du Pays Basque.

En quelques clics, vous pouvez estimer le coût d'installation de panneaux solaires, la durée d'amortissement de l'investissement, et les économies d'énergies réalisables.

Le cadastre propose aussi des solutions pour aller plus loin dans votre projet : contact vers une plateforme qui pourra vous accompagner dans vos démarches et liens vers des professionnels agréés.

Les bénéficiaires éligibles à ce dispositif sont les particuliers dont la résidence principale se situe sur l'une des 158 communes de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, sans plafond de ressources mais à condition que le projet ne soit pas réalisé sur un bâtiment construit il y a moins de deux ans.

L'aide ne peut être octroyée qu'une seule fois par an, par bénéficiaire et par projet, dans la limite de un projet par an. Le bénéficiaire doit être propriétaire du bâtiment recevant les travaux d'installation du dispositif de production d'énergie renouvelable.

Seules les solutions solaires photovoltaïques en autoconsommation individuelle sont éligibles à l'aide proposée. L'aide financière concerne les travaux d'installation de panneaux photovoltaïques et hybrides en toiture. Pour être éligibles à l'attribution de l'aide, les travaux doivent être effectués par un professionnel labellisé RGE QualiPV Electricité, Qualifélec SP1/SP2, Qualibat 5911 ou AQPV.

Cette aide est cumulable avec les aides nationales et locales.

L'aide attribuée s'élèvera à hauteur de 20% du montant de l'installation plafonné en fonction de la puissance de l'installation avec un montant maximal de 8 000 € hors taxe par projet.

Le dossier de demande devra être déposé ou adressé à la Communauté d'Agglomération Pays Basque au plus tard le **1er décembre 2021**, à l'adresse suivante :

Communauté d'Agglomération Pays Basque
 Direction de la Transition Ecologique et Energétique & Agglomération Citoyenne
 Service de la Transition Ecologique et Energétique
 15 avenue Foch
 64100 Bayonne

Ou envoyé par mail à : tee@communaute-paysbasque.fr

Pour toute question, vous pouvez joindre l'équipe de la Direction Transition écologique et énergétique & agglomération citoyenne : 05 59 57 89 53.

Informations complémentaires :

<https://communaute-pays-basque.cadastre-solaire.fr/>

<https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/cadastre-solaire-du-pays-basque>

Eguzki energiarako laguntza



Euskal Hirigune Elkargoa bere lurraldearen trantsizio ekologikoaren eta energetikoaren alde engaiatua da eta tresna baten alde bozkatu du partikularrak diruz laguntzeko panel fotovoltaikoak edo hibridoak ezartzeko haien teiltatu gainean (instalazioaren zenbatekoaren % 20ko laguntza).

Euskal Herriko Eguzki Mapa lineako tresna da, Euskal Elkargoak proposatua, Ipar Euskal Herri osoko etxetako eta eraikinetako teiltatuen energia ekoizpen ahalmena ezagutzeko.

Zenbait urratsetan eguzki panelen instalatzeko kostua estimatzen ahalko duzu, amortizazio iraupena, eta aurreztu ditzakezun energia gastuak. Mapa horrek aterabideak ere proposatzen dizkizu zure proiektuan urrunago joan zaitezten: plataforma batekin harremanetan ezarriko zaitu zure proiektuan laguntzeko, eta ofiziale onetsien zerrenda emanen.

Tresna hori ukan dezakete egoitza nagusia Euskal Hirigune Elkargoko 158 herrietarik batean duten partikularrek, baliabide mugarik gabe, baina eraikinak gutenez bi urte ukan behar ditu. Laguntza urtean behin baizik ez daiteke eman, hartzaile eta proiektu bakoitzari behin, eta urtean proiektu bati gehienez. Hartzailea behar da energia ekoizteko tresna ezarriko den eraikinaren jabe izan.

Bakarrik banakako autokontsumoko panel fotovoltaikoen instalatzeko ukan daiteke dirulaguntza. Dirulaguntza panel fotovoltaikoak eta hibridoak teiltatuen instalatzeko emanen da. Dirulaguntza kausitu ahal izateko, obrak labela duen ofiziale batek ditu egin behar (RGE QualiPV Electricité, Qualifélec SP1/SP2, Qualibat 5911 edo AQPV).

Dirulaguntza hori estatuko eta tokiko laguntzekin batu daiteke. Eman dirulaguntza instalazioaren zenbatekoaren % 20koa izanen da, eta laguntza mugatuko da muntaduraren indarraren arabera, gehienik 8 000 € (BEZa gabe) proiektu bakoitz.

Dirulaguntza galdatzeko dosierra Euskal Hirigune Elkargora beharko da aurkeztu edo igorri, **2021eko abenduaren 1a gabe:**

Euskal Hirigune Elkargoa
Ekologia eta Energia Trantsizioaren & Hirigune Herritarraren Zuzendaritza
Ekologia eta Energia Trantsizioaren Zerbitzua 1
Foch etorbidea, 5
64100 Baiona

Edo e-postaz: tee@communaute-paysbasque.fr

Argibide gehiagoren ukaiteko, Ekologia eta Energia Trantsizioaren & Hirigune Herritarraren Zuzendaritzarekin sar zaitezke harremanetan: 05 59 57 89 53.

Argibide gehigarriak:

<https://communaute-pays-basque.cadastre-solaire.fr/>


<https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/cadastre-solaire-du-pays-basque>

Budget prévisionnel 2021 - 2021ko Aurrekontua

1. FONCTIONNEMENT: Dépenses - Gastuak.

Dépenses - Gastuak

- Charges à caractère général
- Dépenses de personnel et cotisations
- Autres charges de gestion courante
- Intérêts des emprunts
- Subvention exceptionnelle LEMALU
- Dotations aux amortissements
- Virement à la section d'investissement



- Charges à caractère général : 174 347 €

- Energie, Electricité, Eau, Carburant : 20 034 €
- Bâtiments, Voies et réseaux : 90 580 €
- Assurances, honoraires, communication : 16 118 €
- Contrat de prestations de services : 10 000 €
- Frais divers (entretien, administratif, maintenance, petit équipement, taxes) : 37 615 €

- Dépenses de personnel et cotisations : 138 649 €

- Autres charges de gestion courante : 151 473 €

- Indemnités, cotisations Maire et adjoints : 33 323 €
- Cotisations sécurité sociale et retraite : 19 100 €
- Contributions aux organismes de regroupement : 73 645 €
- Subventions : 25 000 €
- * Divers : 405 €

- Intérêts des emprunts : 4 249 €

- Subvention exceptionnelle (Lemalu) : 10 000 €

- Amortissements : 1 872 €

- Virement à la section d'investissement : 26 012 €

Budget prévisionnel 2021 - 2021ko Aurrekontua

2. FONCTIONNEMENT: Recettes - Irabaziak.

Recettes - Irabaziak

- Produits des services et du domaine
- Impôts et taxes
- Dotations, subventions et participations
- Produits de gestion courante (Participation La Poste)
- Revenu des immeubles
- Produit exceptionnel
- résultat reporté



- Produits des services et du domaine : 30 900 €

- Mise à disposition personnel (Lemalu, CCAS) : 30 000 €
- Divers: 900 €

- Impôts et taxes : 334 945 €

- Taxes foncières et d'habitation : 118 000 €
- Attribution de compensation : 155 257 €
- Fonds Nationaux de Garantie Individuelle des Ressources : 61 688 €

- Dotations, subventions et participations : 91 901 €

- Produits de gestion courante (participation La Poste) : 13 227 €

- Revenu des immeubles : 31 200 €

- Résultat reporté : 4 429 €

Le budget prévisionnel de fonctionnement, pour l'année 2021, est équilibré à 506 602 Euros.

2021ko aurrekontu arrunta orekatua da 506 602 eurotan.

Budget prévisionnel 2021 - 2021ko Aurrekontua

3. INVESTISSEMENTS.

Dépenses	Recettes	
93 000 €	22 000 €	Le programme de voirie prévoit un montant de 93 000 € subventionné à hauteur de 22 000 € venant du Conseil Départemental et d'un fonds d'intempéries (Etat).
49 542 €	15 000 €	Nous continuons de nous mettre aux normes pour l'accessibilité des différents bâtiments publics pour un montant de 49 542 € subventionné à hauteur de 15 000 € par un fonds de concours de la CAPB. Ceci concerne les WC près des salles des associations, du mur à gauche, du fronton et de la mairie.
15 500 €	4 500 €	Les panneaux des différentes voies et quartiers de Macaye ainsi que les numéros des maisons ont un coût de 15 500 € avec une aide de 4 500 € venant de la CAPB.
81 000 €	34 426 €	La mise à disposition de la partie centrale du rez-de-chaussée engendre des travaux chiffrés à 81 000 € et subventionnés par l'Etat à hauteur de 34 426€.
23 000 €	7 519 €	La mise aux normes de l'aire de jeux de l'école a un coût de 23 000 € avec une aide de l'Etat de 7 519 €
57 359 €		Le capital de la dette (remboursement des emprunts) sera de 57 359 € cette année.
	8 000 €	En recettes supplémentaires, nous allons enregistrer une rentrée de 8 000 € pour la vente de 400 mètres carrés supplémentaires à la mairie de Louhossoa pour le parking de sa salle à Etxe Handia.
	15 958 €	Le Fonds de Compensation de la TVA engendre une recette de 15.958 € en 2020.
	91 339 €	Nous prévoyons un emprunt pour financer les dépenses d'investissement et notamment les travaux d'Etxe Handia, les loyers futurs pouvant rembourser cet emprunt.

Budget prévisionnel 2021 - 2021ko Aurrekontua

3. DIRU EZARTZEAK.

Gastuak	Irabaziak	
93 000 €	22 000 €	Errepideen programa 93 000 €-koa izanen dela aurreikusia da eta dirulaguntza 22 000 €-koa, Departamendu Kontseiluak emanik eta Estatuak bere "aro gaizto funtsetik".
49 542 €	15 000 €	Eraikin publikoetan helgarritasuna arauen arabera ezartzen segitzen dugu; obrek 49 542 € kostako dute, eta Euskal Elkargoak 15 000 € ordainduko du laguntza funts baten bidez. Obra horiek elkarrean gela ondoko, ezker paretako, pilota plazako eta Herriko Etxeko komunitan egiten ditugu.
15 500 €	4 500 €	Makeako bide eta auzoetako bide seinaleek eta etxeetako zenbakiak 15 500 € kostatu dute, eta Euskal Elkargoak 4 500 € ordainduko ditu.
81 000 €	34 426 €	Etxe beheko erdiko parteko obrak 81 000 €-tara heltzen dira, eta Estatuak 34 426 €-ko dirulaguntza emanen du.
23 000 €	7 519 €	Eskolako jostalekua arauen arabera ezartzeko obrek 23 000 € kostatu dute, eta Estatuak 7 519 €-ko dirulaguntza emanen du.
57 359 €		Zorraren kapitala (maileguen ordainketa) 57 359 €-koa izanen da aurten.
	8 000 €	Irabazi gehigarriari doakionez, 8 000 €-ko diru sartzea ukanen dugu Lulusoko Herriko Etxeari 400 m ² gehiago saldu baitizkiogu Etxe Handian duen gelarako aparkalekua egiteko.
	15 958 €	BEZaren ordainsari funtsak 15 958 €-ko irabazia sortu du 2020an.
	91 339 €	Mailegu bat egitekoa dugu inbestimendu gastuen finantzatzeko, bereziki Etxe Handiko obretarako, eta hango alokairuek mailegu hori ordainduko dute.



Les travaux de voirie ont concerné les chemins de OIHANETXEBERRIA pour 810 mètres et ZEINARTIA pour 520 mètres.



Nous avons adapté les toilettes existantes ou créé de nouveaux sanitaires pour les rendre accessibles à tous y compris les personnes en situation de handicap. Les toilettes du mur à gauche et à côté des salles des associations sont maintenant aux normes d'accessibilité exigées.



L'éclairage du mur à gauche a été refait avec des projecteurs LED.

Un nouvel abri bus a vu le jour au croisement de la départementale et de la route de Zahiola en direction de Mendionde.



Nous avons procédé à l'élagage d'arbres près du mur à gauche et sur la route allant de l'école à la mairie.



Le nombre de randonneurs augmentant, cela pose des problèmes de stationnement. Nous avons aménagé un parking aux 4 bordes pour l'accès à l'Ursuia.

2021 hastapenean egin obrak



OIHANETXEBERRIko bidean (810 m) eta ZEINARTEko bidean (520 m) obrak egin dira.



Herrian ziren komunak egokitu ditugu edo berriak eraiki denek erabiltzeko gisan, elbarritasun bat duten pertsonak barne. Ezker paretako eta elkarteen gela ondoko komunak helgarritasun arauen arabera ezarri ditugu.



Ezker paretako argiak berriz egin ditugu, eta LED argiak ezarri.

Autobus aterpe berri bat ezarri dugu departamenduko errepidearen eta Lekornera buruz doan Zahiola errepidearen juntan.



Ezker pareta ondoan arbolak moztu ditugu, baita ere eskolatik Herriko Etxera doan errepidean.



Ibiltari gero eta gehiago baita mendian ibilki, aparkatzeko arazoak sortzen dira. Aparkaleku bat antolatu dugu Urtsuko 4 bordetan.



Un brise vent va être posé sur le côté de l'appenti de la salle Mindegia.



La fin de la rénovation de la partie centrale du rez-de-chaussée d'Etxe Handia est prévue pour cet automne (Entreprise CARD).




L'aire de jeux de l'école sera complètement rénovée.

Probablement à l'automne, des travaux de voirie seront réalisés sur les routes menant aux maisons Ernaga et Urburua.

Les panneaux de signalisation des voies et quartiers de Macaye vont être posés à l'automne.

Le site internet de la commune est en ligne depuis début juillet après un travail important fourni par la commission Communication. Vous y trouverez des informations sur la vie municipale, les associations, l'économie locale et bien d'autres.

Cette première version va évoluer dans les mois et années à venir avec de nouvelles pages et actualités. L'adresse du site bilingue est: www.macaye.fr, n'hésitez pas à nous envoyer des commentaires (constructifs) et à vous inscrire si vous souhaitez recevoir les bulletins et des informations de la mairie par email (Page Contact).





Haize geriza bat ezarriko dugu Mindegia gelaren aldategi bazterrean.



Etxe Handiaren beheko partearen zaharberritzea larrazken honetako pentsatua da (CARD enpresa).



Eskolako jostalekua osoki arraberritua izanen da.

Probablement à l'automne, des travaux de voirie seront réalisés sur les routes menant aux maisons Ernaga et Urburua.

Les panneaux de signalisation des voies et quartiers de Macaye vont être posés à l'automne.

Herriko Etxearen webgunea linean da uztail hastapenetik, Komunikazio Batzordeak egin lan handiari esker. Herriko biziari, elkarteei, tokiko ekonomiari buruz argibide franko atzemanen dituzu.

Lehenbiziko bertsio hau aldatuz joanen da ondoko hilabete eta urteetan, orrialde berriak gehituko baitira. Webgunea bi hizkuntzetan da: www.macaye.fr. Oharrik bazenu, ez duda (konstruktiboak izan daitezela). Eta herriko aldizkariak eta berriak e-postaz nahi baldin badituzu errezibitu, izena eman dezakezu ("Harremanak" orrialdean).

MAKEAko Herriko Etxea - Mairie de MACAYE - Tél. 05.59.93.32.46 - Email: mairie-macaye@orange.fr

Accueil Actualités Vie municipale Vie pratique Social Les associations Enfance, jeunesse Economie locale, tourisme Contact

Dernières actualités [Cher internaute, voici la première version du site internet de la](#)

MAKEAko Herriko Etxea - Mairie de MACAYE - Tél. 05.59.93.32.46 - Email: mairie-macaye@orange.fr

Hastapena Berriak Herriko bizia Bizi praktikoa Gizarteak Elkarrekin Haurrak, gazteak Tokiko ekonomia, turismoa Harremanak

Makeako Saskia

Site officiel de la Mairie de MACAYE

MAKEAko Herriko Etxearen webgune ofiziala

Azken berriak

- 50€ eskaintza landare herrikotik murrizteko 4. uztaila 2021.

Internaute agurperria, hemen aurki dezakezu Makeako Herriko Etxeko webgunearen lehen bertsioa. Azken hau garatzen ari da, eta hauetarak prest dira zure haridortzeak entzuteko.

Le conseil municipal au travail**Herriko Kontseilua lanean****Les travaux au stade de la réflexion****Obrei buruz gogoetatzen ari.**

Une étude est en cours avec l'association SOLIHA pour l'aménagement du presbytère en trois logements.



SOLIHA elkartearekin ikerketa bat abiatu dugu apezetxean hiru bizitegi antolatzeko.

La réfection du parking du bourg, le long de la départementale est aussi à l'étude.



Errepide bazterreko plazako aparkalekua berriz egitea ere ikertzen ari gara.

Nous pensons à la création d'un espace pour les enfants.

Haurrendako leku baten egitea pentsatzen ari gara.

Dans la continuité de la mise aux normes des accès aux bâtiments communaux, des sanitaires vont être créés au fronton municipal adaptés pour les personnes à mobilité réduite.

Herriko eraikinak helgarritasun arauen arabera ezarri ondoan, herriko pilota plazan komunak eraikiko ditugu elbarritasun bat duten pertsonen egokituak.

Le portail d'accès à ETXE HANDIA est en mauvais état.

ETXE HANDIRA heltzeko portalea egoera txarrean da.

Une demande de subvention a été faite au département pour sa rénovation.

Dirulaguntza galdea egin dugu departamenduari Etxe Handiaren zaharberitzeko.

Afin de compléter le financement, une sollicitation, sous la forme d'un financement participatif, sera faite pour boucler ce projet.

Proiektuaren finantzamendua osatzeko, finantzaketa partizipatibo bat abiatuko dugu.

Nous vous informerons des modalités ultérieurement.

Berantago jakinaraziko dizugu nola egin.



Association BAIGURA MENDI ELKARTEA**BAIGURA MENDI ELKARTEA**

Cet hiver, une réflexion a été menée au sein de l'association BAIGURA MENDI ELKARTEA qui fédère les gestionnaires d'estives sur le mont BAIGURA, ce qui représente 7 communes: OSSES, BIDARRAY, LOUHOSOA, MACAYE, MENDIONDE, HELETTE et IRISSARRY. Cette association gère une superficie de 4000 hectares.

L'objectif est de mener une réflexion commune sur la gestion, la maîtrise foncière, le maintien du pastoralisme et mettre en place un règlement pastoral et une signalétique pour gérer les incivilités.

Pour cela des panneaux réglementaires et pédagogiques vont être posés sur le massif pour les bonnes pratiques des randonneurs en zone pastorale.

Une bergère a été embauchée sur 5 mois (Mai à Septembre) pour venir en aide aux bergers transhumants.

Elle surveille 1000 brebis de 8 bergers, avertit les propriétaires si une brebis est malade et exécute les soins des pieds et tiques, toujours aidée par le berger propriétaire.

Elle fait de la pédagogie auprès des randonneurs, notamment sur la tenue des chiens en laisse et leur explique qu'il ne faut pas déranger les troupeaux et rester sur les sentiers balisés.

Pour cette embauche, l'association a reçu une aide des fonds pastoraux de 70%, l'autofinancement étant réparti entre les 7 communes (500€ par commune).

Nous ferons un bilan à la fin de la saison, pour reconduire ou pas cette expérience.

Ces actions sont indispensables pour la préservation du pastoralisme qui entretient l'espace et contribue à la préservation de la biodiversité.

Il faut trouver une cohabitation harmonieuse et respectueuse entre tous les utilisateurs de la montagne.

Joan den neguan BAIGURA MENDI ELKARTEAk gogoeta bat abiatu du. Elkarte horretan Baigura mendia kudeatzen duten 7 herriak bilduak dira: ORTZAIZE, BIDARRAI, LUHUSO, MAKEA, LEKORNE, HELETA eta IRISARRI. Elkarte horrek 4 000 hektareako eremua kudeatzen du.

Helburua da elkarrekin gogoetatzea mendiaren kudeaketari buruz, lurren jabetasunari buruz, artzaingoari buruz; alha-araudi bat eta seinaletikak plantan ezartzeko xedea ere bada oieskeriarik ez dadin gerta.

Horretarako, arau eta pedagogia taulak ezarriko dira mendian, ibiltariak behar bezala joka dezaten alha guneeetan.

Artzain bat enplegatua izan da 5 hilabeterako (maiatzetik buruiler) ardiak bortura eramaten dituzten artzainak laguntzeko.

1 000 ardi zaintzen ditu 8 artzainendako, jabeak abisatzen ditu ardi bat eri delarik eta zangoen eta lakasten kontrako artak egiten, jabe den artzainaren laguntzarekin.

Ibiltariei pedagogia egiten die, bereziki zakurrak estekaturik atxiki ditzaten eta esplikatzen die artaldeak ez direla trabatu behar eta ibilbide seinalatuetan egon behar dutela.

Artzain horren enplegatzeko, elkarteak % 70eko dirulaguntza ukan du artzaingo-dirutik, autofinantzamendua 7 herrien artean banatua baita (500 € herrika).

Saso bukaeran bilana egingen dugu erabakitzeke esperientzia berrituko dugunez ala ez.

Ekintza horiek beharrezkoak dira artzaingoaren begiratzeko, honek mendia zaintzen baitu eta bioaniztasuna babesten.

Mendia erabiltzen duten guzien artean kohabitazio harmoniatsua eta errespetuzkoa behar da atzeman.

Panneaux signalétiques**Bide seinaleak**

Durant l'automne 2021, l'installation de panneaux indiquant les noms de quartiers, chemins, rues et impasses débutera.


Ceci est le résultat du travail de toponymie déjà évoqué dans les bulletins précédents.

Les panneaux de numéros de maisons (avec les noms) seront mis à disposition des Makear à partir du 1er semestre 2022 et devront être posés de façon à ce qu'ils soient visibles en accédant au logement.

Lorsque le nouvel adressage sera complet, le déploiement de la fibre optique pourra être finalisé et votre logement sera éligible au raccordement. Vous pourrez vérifier votre éligibilité sur la carte en utilisant le lien : <http://thd64.fr/carte-deligibilite/>

En tapant le nom de la commune ou une adresse et si le logement dispose d'une pastille verte, cela signifie que le déploiement est terminé et que le logement est éligible à la fibre.

Un certificat d'adressage sera fourni et après un délai légal de mise à disposition aux opérateurs commerciaux, vous pourrez prendre un nouvel abonnement fibre auprès d'un fournisseur d'accès internet.



2021eko larrazkenean auzoen, bideen, karriken eta karrika itsuen izena jakinarazten duten bide seinaleak ezarriko dira. Aitzineko aldizkarietan aipatu toponimia lanaren emaitza da.

Etheen zenbakiak (izenekin) makearren esku ezarriko dira 2022ko lehen partean, eta etxera heltzean ikusteko maneran beharko dituzte ezarri.

Helbideratze berria arrunt fini izanen delarik, zuntz optikoaren hedapena bururatzen ahalko da, eta zure etxera helarazten ahalko. Lotura honetako mapan ikusten ahalko duzu zuntz optikoa ukaiten ahalko duzun: <http://thd64.fr/carte-deligibilite/>

Herriaren izena edo helbide bat sartuz, etxeak puntu berde bat baldin badu, erran nahi du hedapena bururatua dela eta etxean zuntz optikoa har dezakezula.

Helbideratze agiri bat emanen da, eta merkatuko operadoreei legezko epea utzi ondotik, zuntz optikoa ukaiteko abonamendu berria hartzen ahalko duzu Internet hornitzaile baten etxean.

Centre de loisirs LEMALU**LEMALU aisialdi zentroa**

Cette année , le contexte sanitaire a une nouvelle fois perturbé l'organisation de Lemalu .

En effet, durant les vacances de février nous n'avons pu ouvrir qu'une semaine et à Pâques , en raison du confinement , le centre est resté fermé .

Cet été , malgré un nombre d'enfants inférieur aux années précédentes les 20 premiers jours se sont bien déroulés grâce à un programme riche en activités diverses . Les plus âgés ont ainsi pu se rendre pour un mini camp de 2 nuitées au château de Libarrenx .

Malheureusement la dernière semaine de juillet, en raison de cas de Covid au sein de plusieurs familles, Lemalu a dû refermer ses portes prématurément .

Bonne nouvelle malgré tout, suite à l'enquête envoyée aux familles au mois d'avril et aux retours positifs, les 3 communes ont pris la décision d'ouvrir Lemalu les mercredis à partir de septembre.

Aurten ere, osasun egoerak Lemalu zentroaren antolaketa trabatu du.

Alabaina, otsaileko oporretan, aste batez baizik ezin izan dugu ideki zentroa, eta Pazkoz, konfinamendua baitzen, zentroa hetsirik egon da.

Uda honetan, aitzineko urteetan baino haur gutiago izanik ere, lehen 20 egunak ontsa iragan dira programa aberatsari esker. Zaharrenek 2 gaueko kanpaldia egin dute Irabarneko jauregian.

Maluruski, uztaileko azken astean, Covid kasu zenbait gertatu dira familia batean baino gehiagotan, eta Lemaluk atek hetsi ditu pentsatu baino goizago.

Halere, berri ona: apirilean familiei igorri inkestaren ondotik ihardespen baikorrak ukan ditugu, eta hiru herriek erabaki dugu buruiletik goiti Lemalu idekitzea asteazken arratsaldeetan.

Une nouvelle association est née dans le pays de Hasparren pour venir en aide aux personnes n'ayant pas de moyens de déplacement.

- **Pour qui ?** Pour toute personne habitant dans l'une des communes du Pays de Hasparren qui a besoin de se déplacer sans en avoir le moyen ni les moyens. Le transport solidaire ne doit pas se substituer à un moyen de transport accessible: taxi, ambulance, transport public, famille ou ami. Accessible aux mineurs avec l'accord préalable des parents qui accompagnent si l'âge le nécessite.

- **Pour quels motifs ?** Rendez-vous médicaux nécessitant un déplacement non pris en charge par l'assurance maladie, démarches administratives, recherche d'emploi, accès aux associations caritatives et aux activités associatives, visites aux proches, obsèques, courses de proximité, accès au réseau de transport public.

- **Pour quelles destinations ?** Sur l'ensemble des communes du Pays de Hasparren, des communes avoisinantes et du BAB. Autres destinations (à moins de 100 km) à voir en accord avec le chauffeur bénévole.

- **Comment ça marche ?** Adhérer préalablement à l'association (3 €/an) en appelant le référent de la commune pour le rencontrer.

Exprimer son besoin au référent: destination, jours et créneaux, horaires possibles, temps d'attente.

Le référent reviendra vers le bénéficiaire après avoir trouvé le bénévole disponible et chiffré le déplacement: kilométrage et participation aux frais calculée sur la base de 0,30€/km (avec un minimum de 3€).

Le chauffeur bénévole vient chercher le bénéficiaire à son domicile à l'heure convenue et le conduit à destination. Il peut l'accompagner, si nécessaire, à la demande du bénéficiaire.

A la fin de l'activité ou du rendez-vous, le chauffeur ramène le bénéficiaire à son domicile. Le bénéficiaire paye au chauffeur la participation convenue et les stationnements et péages éventuels. Les coûts sont partagés en cas d'utilisateurs groupés.

Il n'existe pas encore de référent sur Macaye.

Le contact de l'association est le suivant:

Yves Martin,

Tél.: 06.61.97.96.55

E-mail: tsph64@gmail.com

Elkarte berri bat sortu da Hazparnealdean, joan-etorriak egiteko manera ez duten pertsonen laguntzeko.

- **Norentzat?** Hazparnealdeko herri batean bizi den pertsona ororentzat, mugitzeko manerarik eta sosik ez baldin badu. Elkartasunezko garraioak ez ditu usaiako garraioak ordezkatu behar: taxiak, ambulantiak, garraio publikoak, familia edo lagunak. Adingabeek ere erabil dezakete burasoak ados izanez geroz, eta haurrak gazteegi baldin badira, burasoak haiekin joanen dira.

- **Zertarako?** Erien asurantzak bere gain hartzen ez dituen mediku hitzorduetara joateko, desmarxa administratiboak burutzeko, lan baten xerkatzeko, karitatezko elkarteengana eta elkarteen jardueretara joateko, hurbilekoen ikustera joateko, ehorzketetara joateko, hurbileko erosketak egiteko, garraio publikoen hartzera joateko.

- **Noraino joateko?** Hazparnealdeko herri guzietaraino, ondoko herrietaraino eta BABraino. Beste lekuetara joateko (100 km baino gutiago), ikus boluntario den gidariarekin.

- **Nola egin beharko da?** Elkarteko kide egin behar da (3 € urtea), herriko erreferentea deituz.

Erreferenteari bere beharrak esplikatu zaizkio: noraino, eguna, tenorea, igurikatzeko epea.

Erreferenteak erabiltzailea deituko du libro den boluntario bat atzeman ondoan, eta joan-etorriaren prezioa estimatuko du: zenbat kilometro eta gastuetan parte hartzea 0,30€/km-tan oinarrituz (3 €-ko gutieneko prezioa).

Gidari boluntarioa erabiltzailearen xerka joanen da bere etxera, finkatu tenorean, eta doan lekuraino eramanen du. Erabiltzaileak hala galdatuz geroz, lagun dezake.

Jardueraren edo hitzorduaren bukaeran, gidariak erabiltzailea berriz etxera segituko du. Erabiltzaileak gidariari ordainduko dio hitzartu zen prezioa, eta hala balitz, aparkalekua eta autobideko bidesaria. Erabiltzaile bat baino gehiago izanez geroz, gastuak partekatuko dira.

Makean ez da oraino erreferenterik. Hona elkartearen harremana:

Yves Martin,

Tel: 06.61.97.96.55

E-mail: tsph64@gmail.com

1. **Des travaux de renouvellement** de canalisation de collecte d'eau potable sont en cours sur l'Ursuia dans le secteur des 4 bordes, sous la responsabilité de la Communauté d'Agglomération Pays Basque. La fin est prévue mi-septembre, certains chemins de randonnée sont déviés.



1. **Edateko ura biltzeko hodian berritzeko obrak** hasiak dira Urtsuan, 4 bordetako eskualdean, Euskal Hirigune Elkargoaren ardurapean. Obrak buruil erditsutan behar litezke bururatuak izan, artean ibilaldi bide zenbait desbideratuak dira.

2. **Makea Oinez.** La prochaine édition aura lieu le **dimanche 3 octobre**. Pour y participer, il faudra impérativement s'inscrire, nous vous tiendrons au courant des dates d'ouverture des inscriptions.

Nous cherchons des volontaires prêts à intégrer le bureau de notre association, ainsi que des bénévoles pour le balisage des différents parcours qui se fait le samedi 2 octobre et/ou pour la journée de Makea Oinez. Si cela vous intéresse, vous pouvez vous signaler à l'adresse mail : makeaoinezmacaye@gmail.com

2. **Makea Oinez:** ondoko edizioa **urriaren 3an** iraganen da. Parte hartzeko, izena baitezpada eman beharko da; jakinean atxikiko zaituztegu. Gure elkarteko bulegoan sartu nahi luketen boluntarioak xerkatzen ditugu, baita ere urriaren 2an, larunbatean, bidea markatzeko boluntarioak edota Makea Oinez egunean berean lanean aritzeko.

Interesatua baldin bazara, e-postaz jakinaraziezaguzu: makeaoinezmacaye@gmail.com

3. **Lors des cérémonies d'enterrement,** l'ouverture et la fermeture des caveaux étaient réalisées par l'employé communal. Dorénavant, cela sera fait par le personnel du funérarium.

3. Orain arte, **ehorzketak bazirelarik**, herriko langileak zituen hilobiak idekitzen eta hestean. Oraindik goiti, ehorzketa etxeko langileek dute eginen.

4. **Collecte des containers individuels** à ordures ménagères: si vous voulez que votre container soit vidé, n'oubliez pas de le positionner **les roues vers la route**. Sinon, il ne sera pas vidé !

4. **Etxeko hondarkinen edukiontzia indibidualen bilketa:** nahi baldin baduzu zure edukiontzia hustua izan dadin, ez ahantz errotak bidera buruz ezartzea. Bestenaz, ez da hustua izanen!

- **Vendredi 3 septembre**


Collecte encombrants

- **Dimanche 3 octobre**

Makea Oinez

- **Vendredi 3 décembre**

Collecte encombrants



MAIRIE

Tél.: 05.59.93.32.46

Mail: mairie-macaye@orange.fr

Site internet: www.macaye.fr

Ouverture les lundi, mardi, vendredi et samedi de 9h à 12h30.

Permanence du Maire le lundi de 9h à 12h.

Permanences dossiers d'urbanisme : vendredi et samedi de 9h à 12h sur rendez-vous.

AGENCE POSTALE

Tél.: 05.59.15.60.02

Ouverture les lundi, vendredi et samedi de 8h30 à 12h30 et le mardi de 14h à 18h.

Formation au défibrillateur

Desfibrilagailua erabiltzeko formakuntza

Deux défibrillateurs sont disponibles sur notre commune.

Pour pouvoir utiliser ces appareils qui peuvent sauver une vie en cas d'arrêt cardiaque, la Mairie propose des séances de formation.

Deux séances destinées au personnel de la Mairie, aux associations et aux conseillers municipaux ont déjà eu lieu.

D'autres sessions sont en préparation et ouvertes à tous les makear. Il y est enseigné la prise en charge complète de la victime (massage cardiaque etc ..) avant l'arrivée des secours.

Pour tout renseignement, contactez la mairie.

Bi desfibrilagailu badira Makean.

Bihotzekoa ukan duen norbaiten bizia salba dezaketen tresna horiek erabiltzeko, Herriko Etxeak formakuntza proposatzen du.

Bi saio iragan dira jadanik Herriko Etxeko langileentzat, elkarreentzat, eta herriko kontseilariantzat.

Beste saio batzuk izanen dira, makear guziendako. Irakatsiko da bihotzekoa ukan duenaz nola arduratu sokorriak jin arte (bihotzeko masajea, etab.).

Argibideak ukaiteko, sar zaitetz harremanetan Herriko Etxearekin.